

# ADI!!!! HAURRESKOLAN IZEN EMATEAN ALDAKETAK!!!!

2021 - 2022 ikasturteari begira izen emate aldiak aldatu egin dira.

Haurreskolan eskainitako plazen **%85 baino gehiago** hartuta badago, izena emateko ezarritako ondoko epeak beteko dira:

- **Apirilean** ( 12tik 21era ), haurreskolan irailean, urrian eta azaroan hasiko diren haurrentzat.
- **Urrian**, haurreskolan abenduan, urtarrilean eta otsailean hasiko diren haurrentzat.
- **Urtarrilean**, haurreskolan martxoan, apirilean, maiatzean eta ekainean hasiko diren haurrentzat.

**ANTZUOLAKO HAURRESKOLAN %85a baino gutxiago** hartuta dagoenez, **HILABETERO**, hilaren 1etik 10era egin ahal izango da izen ematea. Haur hauek hurrengo hilabetearen hasieran hasiko lirateke egokitzapenarekin. Epe hau bete ezean, hasiera data, hurrengo hilabetearen hasierara atzeratuko da.

Edozein zalantza duzuela deitu haurreskolara 943 78 60 15 zenbakira.